

ERLATIBO ARRUNTA ZEHAZTAILE? TEORIAK ETA DATUAK

Jose Antonio Mujika

0. Puntu eta kontu asko aipatzen ditu J. Garziak *Joskera lantegi* liburu lodian. Eta, jakina, kontu asko aipatzearekin batera eztabaidarako ere aukera handiak eskaintzen dizkie kontu horien gainean mintzakide hurbiltzen zaizkionei. Ez dut zalantzarik egiten gogo onez hartuko duela berak mintzakidetasun hori, aipamen guztiak aldeko ez baditu ere. Nik hemen, bestelakoak bestetarako edota besterentzat utziz, perpaus erlatiboei buruz ematen dituen azalpenak izango ditut eztabaidagai (367.- 402. orr.), hor esaten dituenak ez baitatoz bat euskal erlatiboa luze eta sakonen aztertu duten gramatikariek eman dituzten azalpenekin. Eta, zergatik uka, neroni ere ez naute asebetetzen.

Euskaraz, izen ardatzaren ezkerrean doan *-eN erlatiboak* balio “zehaztailea” omen du berez, Garziaren irudiko (1). Har dezagun, esate baterako, ondoko perpausa:

(1) Jauregian bizi den gizona txekiarra da.

Horko erlatiboaren izen ardatza berez zehaztugabea da: “gizon” batez ari dela esaten digu, bai, baina ez digu zehazten zein gizonenez ari den. Ezkerrean duen erlatiboak egiten du zehaztapena, gizon guztien multzotik “jauregian bizi dena” seinalatuz.

Horra, bada: izenaren ezkerrean kokatua dagoen erlatibo arruntak beti egiten omen du zehazte-lan hori, Garziak dioenez. Eta horrek, besteak beste, honako bi ondorio jakingarri hauek omen ditu, haren prosa korapilatsua zuzen ulertzeko gai izan banaiz behintzat:

a) Izen propioek ezin omen dute ezkerrean erlatiborik hartu. Izan ere, berez dira zehatzak izen propioak, arruntak ez bezala, eta, hortaz, ez dute zer areago zehaztu. Horrela, bada, (2) bezalako perpausak ez omen dira egokiak.

(1) Lan honetan *-en erlatiboaz* ariko gara. Gauzak erraztearren, *erlatibo arrunta* deituko dugu horrela eraturakoa. Galdetzaileen bitartez eta *bait*-en bitartez erazten direnak geure azalpenetik kanpora uzten ditugu (horien balioaz ikus, besteak beste, Goenaga: 297 eta Villasante: 215). “Zehaztaile”, berriz, bestek “murriztaile”, “mugatzaile” edo “identifikatzaile” deitu izan dituzten erlatiboei esango diegu, Garziak bezala —gaztelaniaz *restrictivas* esaten zaienei, alegia—. “Ez zehaztaile”, berriz, azalpenekoak dira, zenbait hizkuntzatan apositiiboak direnak.

- (2) Euskararen alde hainbeste lan egin zuen Mitxelenari omenaldia egin-gin diote bihar bere herrian.

b) Zeregin zehaztailek ez duenean egokiago omen doa erlatiboa izen ardatzaren eskuinean, kokapen horrek zehaztailetasuna hausteko balio baitu berriaz, ezkerrekoak ez bezala. Ikus, esate baterako, ondoko perpaus bi hauen arteko aldea:

- (3) a) [gosez bizi diren] *pobreak*
 b) *pobre* [gosez bizi diren]ak

Horietan, erlatiboa izenaren ezkerrean duen (3a)-k balio zehaztailea izango omen luke, pobreetan gosez bizi direnak bereizten eta zehazten baititu. Pobre batzuk gosez bizi direla eta beste batzuk ez, horra zer suposarazten duen perpaus horrek eta, hain zuzen, gosez bizi direnei egiten die erreferentzia. Aldiz, erlatiboa izenaren eskuinean duen (3b)-ko perpausak ez luke balio hori izango. Pobreen multzo osoa hartzen omen du horrek, haien artean bereizketarik egin gabe, eta guzti-guztiei dagokien zerbait gogorarazi eta azaldu besterik ez du egiten —denak bizi baitira gosez—. Lehenak egiten duena zehaztapena omen da eta bigarrenak egiten duena, berriz, azalpena.

Puntu horiek biak izango ditut, bada, mintzagai ondoko lerroetan. Garzieren ikuspegi estu hori euskararen gramatikarekin bat ez datorrela erakusten saiatuko naiz, hizkuntzaren datuak modu beteagoan erabiliz. Lehenengo atalean izen propioen gorabehera aztertuko dut (§1); bigarrenean, erlatiboaren kokapenari dagokiona (§2); eta, hirugarrenean, kontu hauen azalpen egokiago bat aurkezten saiatuko naiz, bestek esandakoaren ildotik (§3).

1. IZEN PROPIOA ERLATIBO ARRUNTAREN ARDATZ

1.1. Ikus dezagun, bada, hasteko, nolako arrazoiak ematen dituen Garziak *hainbeste lan egin zuen Mitxelenari, hainbeste zekien Einsteinek, partida guztiak irabazi dituen Barcelona* eta horrelako erlatiboak egokitzen ez izateko. Eskaintzen duen arrazoi nagusia azaltzen erraza da: horrelako erlatiboak “bere sistematan” egokiak ez direla, alegia. Izan ere, erlatibo horiek, izenaren ezkerrean daudenez, zehaztaileak omen dira eta, hortaz, ez dute lekurik jadanik zehatza den izen baten aurrean: *Mitxelena* askoren, *Einstein* askoren eta *Barcelona* askoren arteko bereizketa egingo omen lukete perpaus horiek; eta ez da hori, bistan da, egin nahi zena.

Garziak gurdia idien aurrean ipini ote duen nago; teoria datuen aurretik jarri ote duen, alegia. Hiztunengandik jaso beharreko datu guztiak bildu eta, ondoren, haiei dagokien azalpena aurkitzen saiatu beharrean, gogara harturiko datu batzuen inguruan teoria bat eraiki du —beste hizkuntza batzuen jokabidean oinarritua, seguruenera ere—, eta, gero, horren ondoren, erraz erabaki du

kontua: teoriarekin bat ez datozen datu guztiak aipaldi soil batez baliogabetu... eta kito (2)!

Baieztapen hutsa beste arrazoirik ez ote du, bada, aurkezten, bere doktrinaren alde? “Autoritate” bi ere aipatzen ditu, egia da, zeharka eta bide batez bezala bada ere, aldeko diruditenak: XVI. mendeko Leizarragarena, batetik, eta mende honetako Akesolorena, bestetik.

Horrela, Leizarragak ez omen du *erlatibo arrunta + izen propio* egitura soileko adibiderik. Erabiltzekotan, izen propioaren ondotik beste elementuren bat duela erabiltzen omen du egitura hori: izen arrunt bat, adjektibo bat... —*guztiak salbatzera etorri den Krist gure jauna*, esate baterako, eta ez *guztiak salbatzera etorri den Krist*, alegia—, eta horrela onargariagoa omen da egitura. Egia esan, ez du gehiegi azaltzen zergatik den onargariagoa horrela, “azalpenekoa” baita erlatiboa horretan ere, izenaren ezkerrean egon arren.

Dena dela, hori horrela izan edo ez izan, jauzi handiegia egiten du Garziak lekukotasun horren aipamenean. Leizarragak jokabide hori duenez, horrela egin “behar” dela ateratzen du ondorio. Bestela esanda, Leizarragak izen propio soileko adibiderik ez omen duenez, horrelakoak “ezinezkoak” direla ateratzen du ondorio. *Ex silentio* froga da hori, bistan denez, sarritan ahul eta balio eskasekoa izan ohi dena. Usteak, gainera, ustel gertatzen dira maiz. Hara, behako arin baten ondoren honako kasu hauek aurkitu ditut nik Leizarragarenean:

- (4) *Benedicatu dela* Iaunaren icenean ethorten den Reguea (Lc 19, 38).
- (5) [...] nitan dagoen Aitac eguiten ditu obrác (Jo 14, 10).
- (6) a) Gure aiutá dela cerua eta lurra eguin dituen Iaunaren icenean (A i...).
- b) [...] bere Spiritu Sainduaz iabetu içan çaicun Iauna laudatu dela (ABC i).
- c) [...] dio gauça hauc guciac eguin dituen Iaunac (Act 14, 17).
- (7) a) Iauna, hi aiz ceruä eta lurra, itsassoa eta bertan diraden gauça guciac eguin dituan Iaincoa (Act 4, 24).
- b) Mundua eta hartan diraden gauça guciac eguin dituen Iaincoa (Act 17, 24).
- (8) Paulec predicatu duen Iesusen partez (Act 19, 13).
- (9) Haur da Iesus Prophetá Galilean den Nazareteco (Mt 21, 11).

Adibide horietako erlatiboen izen ardatzek izen propio gisa jokatzeko dute eta, hala ere, ezkerrean daramate “zehaztaile” ez den erlatiboa. Denek ez dute

(2) Espantuka mintzo da, gainera, bestela irizten diotenei “boluntarista” eta “denakbaliolari” bezalako loreak eskainiz (396. or.), horrelako hitzak erabiltzeak bere arrazoiak sendoago egingo dituelakoan edo.

erabide bera, egia da. Horrela, *Reguea*, *Aita*, *Iauna* eta *Iaincoa* izen arruntetik eratorriak dira, artikulatu eta guzti, eta pentsa daiteke horrek errazten duela beharbada aurretiko erlatiboaren erabilera. Erlatibo hori, ordea, berriro esan, “ez zehaztailea” da, kristautentzat ez baita, haien doktrinen berri duen edozeinek ondo dakienez, aipatu hutsarekin berehala bereizten den Errege, Aita, Jaun eta Jainko bat baizik. Are agerikoagoa da kontua (8) eta (9) perpausetako kasuan. *Jesus* izen propioa da euskaraz, ez artikulurik ez horrelakorik gabe, haren hebreoko etimologia edo grekoko erabilera gorabehera. Eta (9) perpausan ere ez dago dudarik: *Galileako Nazaretoko* itzuli astuna saihesteko erabili du hor erlatiboa Leizarragak, beharbada, baina argi dago, nolana izan ere, izen propioa dela *Nazaret*. Eta ezkerrean duen erlatiboa, “azalpenkoa” dela, kontua ez baita hor Nazaret askoren artean Galilean dagoena bereiztea eta zehaztea.

Are nabarmenagoa da Garziak espantu handiz aipatzen duen bigarren “autoritate” edo dena delakoaren kasua. Honako Akesoloren esaldi bi hauek aipatzen ditu bere teoriaren aldekotzat (389.-390. orr.; ikus Arrue: 21 eta 22):

- (10) a) [...] benetako Santa Jenobeba Parisek zaindari duenaren omenez.
- b) Eta andre gaztea an gelditu da jauregian bakarrik Golo zerbitzari leialtzat zegoenaren, baiña zital lizun saltzaille gertatu denaren mende.

Eta honako iruzkin hau eransten du: “Akesolok bederen garbi erakutsi digu, bere idazkeran, berak badakiela bereizten erlatibo zehaztailea zehaztaile ez denetik” (390. or.). Izan ere, perpaus horietako erlatiboak zehaztaileak ez direnez, ondo omen daude *Jenobeba* eta *Golo* izen propioen eskuinean. Oker omen leudeke ezkerrean...

Herren egiten du hor ere argudioak, perpausa modu batera agertzeak ez baitu esan nahi, besterik gabe, bestela ezin ager daitekeenik. Perpaus bi horietan erlatibo ez zehaztailea izenaren eskuinean egoteak ez du esan nahi ezkerrean ezin joan daitekeenik. Eta lekukotasunak aipatzen hasita ez da zuzena norberari komeni zaizkionak bakarrik aipatzea, kontrakoa isilduz. Hona, gehiegi saiatu gabe, *Akesoloren Idazlan guztiak-1* liburuaren orriak gainbegiratzuz aurkitu ditudan bestelako kasu batzuk:

- (11) a) asieran lankide izan zan Luis Elizalde zanaren il barria zekarren (28).
- b) ona zure okerra; zurea eta zuk ontan maisutzat duzun Azkue zanarena (53).
- c) euskal-idazle andi izan dan Peru Larzabal zanaren illeta meza izan dala-ta (217).
- d) Españako gobernuaren ordezkari zan Mazarredo jaunak (434).
- e) Euskal-idazle askoren maisu dan Mitxelena Jaunak berdintsu esan du oraintxe (185).
- f) Oraintsu betiko agur egin zigun Aita Alberto Lazkaoko beneditarrak txintxo egindako lana da (805).

- (12) a) eztoгу aintzat artuko [...] Leizarragak bere aldian [...] atera eban “Kalendrera” (17).
 b) Borbontarren erdian gelditu zan Euskalerrriari ere Borbonkeri ori erantsi zaio (180).
- (13) a) Alaxe gertatu da euskerazko leen-idazletzat dugunarekin, euskerazko leen-liliak eman zituen Etxeparerekin (204).
 b) eta bati baiño geiagori oker-ulertuak ekarri deutsoz. Esaterako, gure literatura antologiak egin dabezan Lafitte eta Aita Onaindiari (235).
 c) Egutegia, Okondoko seme ta Abandoko aberesendatzaille izan zan Ulibarrik antolatu eta euskeraz jarria (416).
 d) Baiña norena izan da nekea [...]? Bertsolaritzak ainbeste zor deutsan eta merezitutako eskerik izango ez dauan Aita Antonio Zabala'rena (427).
 e) Donostiko Gotzai dan J. Maria Setienek (700).

Horra, bada: horietan guztietan erlatibo “ez zehaztailea” izen propioaren ezkerrean dago. Arrazoiak bilatzen hasita esan daiteke, bai, (11) multzoko perpausetan izen propioak baduela zerbait ondotik: *zana*, *jauna*, *beneditarra*. Eta era berean, (12) multzokoak izen propioak izanik ere, artikuludunak direla eta horrek erraz dezakeela, beharbada, ezkerreko erlatiboaren erabilera. Baina (13) multzokoak izen propio soila daramatenak dira, inolako zalantzarik gabe.

Zer esan, orduan? Baietz, noski, badakiela Akesolok erlatiboa erabiltzen eta horrexegatik, hain zuzen, Garziak proposatu bide estutik libre dabilela haren erabileran: izen propioarekin ere badarabilela, alegia, haren eskuinean nahiz, are maizago, ezkerrean kokatuta.

Garbi esanda: zein ere interesgarri iruditu dakioken beharbada norbaiti Garziaren “sistema”, harena ez ezik euskararena ere badela frogatzeko leku-kotasunak ditu eskas.

1.2. Garziaren aipamenen ahultasuna erakutsi ondoan, niri dagokit orain *erlatibo arrunta + izen propioa* egituraren alde ditudan argudioak eta frogak ekartzea, nirea ere baieztapen hutsean gera ez dadin.

a) Hasteko, eta oroz gain, hiztunen onarpen zabala dago. Bati baino geiagori erakutsi diot —ez nolanhiko hiztunak haietako batzuk— goiko (2) perpausa eta inork ez dio aitzakiarik aurkitu. R. De Rijkek ere ondoko (14) perpausarekin egin omen zuen froga eta galdetutako inork ez omen zion eragozpenik aurkitu (De Rijk: 153).

- (14) Egunero kilo erdi bat txokolate jaten duen Beobide'tar Pantxika ez da bat ere gizentzen.

Gorago aipatu ditudan adibideetako perpausak ere, batez ere (8), (9) eta (13) adibideetakoak, onarpen horren froga dira. Horiei, besteak beste, B. Irao-laren hau ere erants dakieke, De Rijkek aipatzen duena (154. or.):

(15) [...] esan zion erdiko gelan dagoen Meltxorrek.

Edota Akesoloren (10) perpausak ageri diren liburuaren hitzaurrean K. Mixelenak idatzi zuen beste hau:

(16) [...] dio hemengo zerrendan ageri den Gregorio Arruek (Arrue: 15).

b) Gramatikarien lekukotasuna dator, bigarren. Lardizabalek zerbait eragozpen jarri zien horrelako perpausei, baina eragozpena gramatikari baino areago estiloari-edo dagokiola dirudi: izen propioa ergatiboan dutenak bestela eman behar direla dio —*hainbeste diru duen Mikelek limosna txikia eman du bezalako*en orde, esate baterako, *hainbeste diru izanik limosna txikia eman du Mikelek*, alegia— (3). Estilo gorabehera da hori, esan bezala, beti-beti balio ez duena. Aurkaritza adierazten dutenetan, bai, baina ez, esate baterako, goiko (16) bezalakoetan.

Gure egunotan erlatiboen kontu hau sakonen aztertu duten gramatikariek, ordea, zalantzarik gabe onartu dituzte horrelako erlatiboak, berariaz onartu ere. Horrela, hain zuzen, R. De Rijkek (150 or.) eta B. Oyharçabalek (123 or.). Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak erlatiboei buruz prestatu eta laster argitaratzeko duen V. liburukian ere, erlatiboen balioaz ari dela, honako adibide hau aipatzen du:

(17) Aspaldi ezagutzen duzun Maddi nire arrebak esango dizu hori.

Egia da *nire arreba* aposizioa ageri dela hor izen propioaren segidan, baina ondoko azalpenak hori gabe ere egon daitekeela iradokitzen du. Izan ere, hor “izen ardatzak berezko erreferentzia du, ezen izen berezia da (*Maddi*), eta gainera *nire arreba* ere agertzen da. Perpaus erlatiboak ezin izan dezake balio mugagarririk hor, (...) sintagmako izen ardatzaren erreferentziaren bidez berez baita mugatua (izen bereziaren ezaugarri nagusia dugu hori)”.

c) Lan hau idazten ari naizen egunetan erne eduki ditut begi-belarriak ea gisa honetako erlatiboak entzun edo irakurtzen nituen eta egitura doi bat berezia izanik maiztasun handiegikoa ez den arren, aurkitu ditut han-hemen adibideak. Hona haietako batzuk:

- (18) a) Batzuek pentsatuko dute zergatik festa bat oinazetan pausatu zen Mattin zenaren alde? (Euskaldunon Egunkaria, 98-04-29, 2.or.).
 b) Sorreratik bertatik epai-mahaian jardun duen Anjel Lertxundik esan duenez [...] (Diario Vasco, 98-05-05, 70. or.).
 c) Athletic-ek, berriz, aspaldi honetan pattal dabilen Oviedo izango du aurrean (irratian entzuna).
 d) Oraindik haruntzago joan zen, 1698. urtean, Kalahorrako ipiztiku zen Pedro de Lepe (San Martin: 42).

(3) Horren antzeko zerbait dio —hari jarraiki, itxuraz— Etxaide euskaldunberriak ere.

Ez ditut adibide horiek guztiak pisu bereko lekuko gisa ekartzen, denak *le bon usage* delakoaren froga balira bezala. Erabilera hedatuaren erakusgarri ekarri ditut, gorago aipatu adibideekin bat eginik zerbait adierazten dutelakoan. Garziak berak ere egiten du erabilera horren aipamena, “euskal hiztunik trebeenetako batzuk ere hortxe” daudela dioenean (395) (4).

Eragina izan du, hala ere, Garziaren liburuak. *Euskaldunon Egunkaria*-n, esate baterako, *Donostiako alkate Odon Elorzak, Tolosa Kirol Elkarteko buru Andres Urmeneta* eta horrelakoak idazten dira sistemaz azken aldi honetan, tartean sar litekeen *den* erlatibo gabe. Ez dut ezer, noski, egitura apositibo horren aurka, zuzena baita. Hori hobesteko arrazoia, ordea, estiloari-edo dago-kiona da, ez gramatikari. Okerra izango litzateke erlatiboko egitura hori zehaztailetasuna aitzakia hartuta baztertzea. “Beharrezkoa” izatera ere irits daiteke gainera, egitura konplexuagoa egiten den heinean: *Gipuzkoako Diputatu eta Unibertsitateko irakasle Luis Badiolak [...]* edota are *Gipuzkoako Diputatu, Alderdiko buru eta Unibertsitateko irakasle Luis Badiolak [...]* egitura apositiboak onar daitezke, beharbada, zein ere pisu diren, baina *Donostiako alkate eta, hala ere, Athletic-en zale den Pedro Mendiburuk [...]* perpausari ezin ken dakiok hain erraz erlatiboko *den* hori.

Labur esanda: euskaldunon erabilera ez dirudi erlatibo *arrunta + izen propioa* gisako egitura galarazten duen debekurik dagoenik. Eta erlatibo hori gehienetan “azalpenkoa” edo “ez zehaztailea” da, bistan denez. Doi bat berezia izanik, maiztasun handi-handikoa ez bada ere, garai, euskalki eta autore askotan ageri da, eragozpen handirik gabe. Maiztasunarena, berriz, izen propioak berez duen izaera bereziaren ondorio da, aurrerago ikusiko dugun moduan, erlatiboarekin zerikusirik ez duena; ez, behintzat, honen balio zehaztaile edo ez zehaztailearekin.

2. ERLATIBO ARRUNTAREN KOKAPENA ETA BALIOA

2.1. Aurreko atalean esandakoaren ildotik, beraz, balio desberdinak egozten dizkio Garziak erlatibo arruntari kokapenaren arabera: izen ardatzaren ezkerrean doan erlatiboak balio zehaztailea omen du berez; eta eskuinean doana, berriz, posizio atributiboan omen dago eta, hortaz, berariaz baztertzen du balio zehaztailea.

Ikuspegi horren alde ekartzen ditu, besteak beste, kontu hau ondo ezagutzen omen duen Akesoloren (10) gisako adibide gorago aipatu ditugunak. Eta harekin batera Mogel ere aipatzen du, zeinek “erlatibo-perpausak ere maiztxo baitarabiltza —zehaztailetasuna hausteko, hain zuzen— adjektiboen posizioan” (388), eta haren adibide hauek ematen ditu jokabide horren erakusgarri:

(4) Gero, ordea, harrigarriro, horrek gutxi balio duela erantzen du eta hiztun “trebeenetako” horien lekukotasuna —bere teoriarekin bat ez datorrelako, beharbada— “si itz erdiak hongui idatzi dut” liokeen ikasle kaskarraren aitzakiaren pareko egiten du! Argudioak gogoak eman ahala erabiltzea ez al da hori?

- (19) a) ez dabil ... oinez, eta bai *zaldi* [berak beste urte dituban]ian.
 b) Artu zuan *galbae* [zulo asko zeukan]a.

Honako Kardaberazen hau ere aipatzen du:

- (20) *eskala* [guzizko argitasun ederrez bete, gelatik zeruraño igotzen zen] bat ikusi zuen.

Horietan guztietan, bada, erlatiboa izenaren eskuinean izateak esanahi jakina omen du. Ezkerrean joango balira, zehaztaileak izango omen lirateke: (19a)-k, esate baterako, “hainbeste urte dituen zaldi bat” adierazi beharrean, “zaldietan hainbeste urte dituen, hura eta ez bestea(k)” adieraziko omen luke. Gaztelaniara itzuliz “un caballo, que...” adierazten omen du erlatiboa eskuinean duenak eta “el caballo que...” ezkerrean duenak.

Aurkezpeneko adibidera etorritik, *pobre gosez bizi direnak* bezalako perpausak egokiak dira, balio zehaztaileak ez baitute eta, hortaz, pobre guztiei dagokien azalpena baizik ematen ez baitute. Era berean, *gizon hilko direnak* ondo dago, hiltzea denoi dagokigun ezaugarria baita; *hilko diren gizonak* esanda, berriz, adierazitako horiek bai, baina beste batzuk ez direla hilko suposatzen omen da.

Herren ikusten dut hemen ere Garziaren argudioa, aurrekoan bezalaxe. Ematen dituen adibideetako erlatiboak “eskuinekoak” eta “ez zehaztaile” izateak hori besterik ez du adierazten: horiek horrelakoak direla. Horrek ez du frogatzen, ordea, ez eskuineko guztiak, duten posizioa dutelako, “ez zehaztaile” direnik, ez eta ezkerrekoak beti eta nahitaez zehaztaileak direnik ere. Adibideak gogara aukeratzea erraza da, baina horrek ez du askorik frogatzen, bestelakoak ere aurki baitaitezke, beharbada, hartara jarritz gero.

Hona, esate baterako, Garziak hainbeste goraiatzen duen Mogelen beste adibide hau, goiko (19a) perpausaren guztiz antzekoa izanik ere erlatiboa izenaren ezkerrean duena, nahiz eta honetan ere, hartan bezala, andre kume “barentzat” ulertu behar den *-a* mugatzailea gorabehera:

- (21) Ze atsegiña [larogei urte urtean dituan] *andrekumearentzat* (Moguel: 46).

Ezin da, bada, esan, zehaztailetasuna hausteko erlatiboa izenaren eskuinean ipintzen duela beti Mogelek, ezker-eskuineko kokapena ez baita horretan bereizgarri.

2.2. Adibideak ugariak dira hemen ere. Izan ere, ez da zaila aurkitzea izenaren eskuinean izanik ere “zehaztaile” diren erlatiboak ez eta, alderantziz, ezkerrean egonik “ez-zehaztaile” direnak ere —Garziaren sistema gezurtatzen dutenak, horrenbestez—.

Hona erlatiboa eskuinean izanik ere zehaztaile —eta ez azalpen hutseko— diren Mogelen beraren batzuk:

- (22) a) berbarik onen esango deutsuna izango da (...) (*Ib.*: 30).
 b) errukarria da (...) gizon adiaña galduten dabena (*Ib.*: 39).
 c) ta iru lauko geratuten direanak isten ditugu (...) (*Ib.*: 43).
 d) Egizu laster sangria egingo dozuna (*Ib.*: 45).
 e) azaltxu me azal lodiagoari eraatsita dagoana da mintz txito me (...) (*Ib.*: 52).
 f) Ezta, gizonaldi dakigunean, etxe onetara ezkondu (...) (*Ib.*: 57).
 g) esaizu lengo eguneko ipuiñ abadeak atera ta irakatsi eutsuna (*Ib.*: 61).
 h) emoteko (...) Jaungoikoaren deiko lenen datorkonari (*Ib.*: 68).
 i) ezteutse gillirik egiten olagizon lotan dagozanen belarriai (*Ib.*: 87).
 j) antxe dago urdai-azal, labandu eragin eutsana (*Ib.*: 135).
 k) Aguazil etorri dana, ze mutil sendoa! (*Ib.*: 136).

Horietan guztietan erlatiboa izenaren eskuinean dago, baina, hala ere, balio zehaztailea du —eta horrela ulertu zituen gaztelaniazko bertsioa egin zuen Juan C. Cortazarrek ere— eta ezin da, hortaz, eskuinean joateak zehaztailetasuna hausten duenik esan.

Honako beste hauetan, berriz, bina erlatibo ditugu perpaus bakoitzean, bat izenaren ezkerrean eta bestea eskuinean kokatuak, azken hauetan zehaztailetasun-ezik ez dagoelarik:

- (23) a) [txikitan guraso edo eskola maisuak irakatsi eutsuzan] *eskari* [Eleizeak artuta daukazan] *ak* (*Ib.*: 28).
 b) isildu gura ditut [aitatuten deustezan] *izen* lotsagarri [damu emoten deusteen] *ak* (*Ib.*: 41).
 c) [zuri entzuten deutsudazan] *izen* [neuk eztakidazan] *ak* (*Ib.*: 49).

Ez da zaila beste autoretan ere eskuineko erlatibo “zehaztaileak” aurkitzen:

- (24) a) Trabaille çaitetze ez vianda galtzen denagatic, baina vicitze eternalecoçat irauten duenagatic (Leiçarraga: Jo 6, 27).
 b) Iudu Mariagana ethorri ciradenetaric [...] anhitzec sinhets ceçaten hura baithan (*Ib.*: Jo 11, 45).
 c) Intencino eramo (sic) beardena Meza ençutera doayenean (Beriayn: 28).
 d) Artu eguisu beyñ onaco trapu iqusleac ecarri ditsusanac (Micoleta, 30).

Horiek, bada, eskuinean egon arren, balio zehaztailea duten erlatiboak dira. Txanponari buelta emanez, bestalde, aurki daitezke izenaren ezkerrean egon arren “zehaztaile” ez diren erlatiboak. Horrelakoak dira, esate baterako, izen propioa dela-eta gorago aipatu ditugun (4)-(9), (11)-(17) eta beste zenbait perpaus. Eta, berdin, Mogelen hauek ere:

- (25) a) Noz aztu iatzuz (...) ta Kristo bereberak erakutsi eban Aita geurea? (Moguel: 28).
 b) Jaungoikoak egieban lenengo gizonari emon eutsala (...) (*Ib.*: 101).
 c) Sinisten dot guztia daikean Aita Jainkoagan (*Ib.*: 112).

Azkena bizkaierazko kristau dotrinetatik hartu zuen Mogeleg, baina beste biak bereak ditu; eta guztietan, oker ez banago, izen sintagma zehaztua ageri da, erlatiboa gabe ere.

Beste honako Axularren hau ere aipatzen du Garziak, haren “hankasartze” bakarra delakoan:

- (26) a) Khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna (Axular: 24).

“Alfertasun” izena generikoa da hor eta ez dago alfertasunen artean zer zehazten ibili, “bat” baita alfertasuna. Erlatiboak alfertasunaren ezaugarriak aipatzen ditu, azalpen gisa, baina ez du horrekin ustezko alfertasun klase bat besteetatik bereizten.

Zergatik da, ordea, hori “hankasartzea”? Eta bakarra, gainera? Ez dirudi horrela denik. Beste honako hauetan ere, hain zuzen, izena generikoa da:

- (27) a) [...] penitziaren premiarik eztuen iustua (*Ib.*: 552).
 b) Dembora gutiz egiten den bekhatuari, emaiten zaika gaztigu luzea eta sekulakoa (*Ib.*: 610) (5).

Perpau horietako erlatiboa ez da zehaztailea, *justuaz* eta *bekatuaz* orokorki mintzo baitira perpauak. Penitziaren premiarik ez izatea justu guztiei, justu diren aldetik, dagokien ezaugarria da; azalpen hutsa da hori, penitentzia kontuak ez baitu justu batzuen eta besteen artean bereizketarik egiten. Bekatua ere, bekatu oro, denbora laburrean egiten da, denbora hori eternitatearekin alderatzen badugu, behintzat. Hona, berriz, plural generikoa duen bat:

- (28) Nola traillaatzen direnec, traillaatzen eztiren alferrac eta naguiac, eztèn colpez, egotzten dituzten bere compaiñiatic (*Ib.*: 35).

“Ez traillaatzea” ez da, noski, erle alfer batzuen ezaugarria, beste alferrengandik bereizten dituen, “erle alfer” izenez ezagutzen diren guztiei dagokien kontua baizik, horietaz guztiez mintzo baita perpaua, dagokien ezaugarria —“traillaatzen ez direla”, alegia—, azalduz. Ezkerrean egon arren, beraz, hor ere ez dago zehaztailetasunik.

Ez dirudi, bada, ikusten denez, zehaztearekin zerikusi zuzena duenik kopakena, bateko zein besteko balioa izan baitezake erlatiboak, izenaren ezker nahiz eskuin egonik ere.

(5) Kapitulu honetan maiz darabil egitura bera, *bekatu* izen ustez generiko edo, bederen, zehazkai ez denarekin (608, 612, 613...).

Batean zein bestean kokatzeko aukera hori erakusten dute, halaber, azkenik, honako Leizarragaren adibide bi hauek, Oyharçabalek bere lanean aipatzen dituenak (22-23 orr.):

- (29) a) Ceren ikustera ilki çarete desertura? haiceaz erabilten den canabera baten? (Mt 11, 7).
 b) Ceren ikustera ilki içan çarete desertura? Canabera haiceaz erabilten den baten? (Lc 7, 24).

Mogelen hauek biek ere gauza bera erakusten dute, *bat* mugatzailea daraman izen sintagmak erlatiboa ezkerrean nahiz eskuinean eraman dezakeela, alegia:

- (30) a) adiskide asko gura jakon bati esan bear iako nunai (...) (Moguel: 38).
 b) basoen aztarrenak ateraten (...) zeinbat burdi ikatz dagoan arlo edo saill andi baten (*Ib.*: 20).

Zehaztailetasunaren teoria horri tiraka, izenlagunetara ere luzatzen du Garziak kontua eta, horrela, haren irudiko, *Erromako Aitasantua* eta *Aitasantu Erromakoa* esaldiek balio desberdina omen dute. Lehenak, *Erromako* izenlaguna ezkerrean —hau da, zehaztaile posizioan— duenak, *aitasantu bat* baino gehiago dagoela iradokitzen omen du eta, hain zuzen, zein *aitasantuz* ari garen zehazten omen du, *Erromakoa* besteengandik bereiziz. Bigarrenak, berriz, eskuinean du izenlaguna —hau da, posizio atributiboan— eta, hortaz, ez omen du horrelakorik iradokitzen: *aitasantu* bakarra da eta *Erromakoa* izatea haren ezaugarrietako bat da, baina ez ezaugarri bereizgarria.

Erlatiboez esandako gauza bera esango nuke nik honi buruz ere: Garziak euskaran ikusi uste duen jokabidea izango da hori gehienaz ere; ez, ordea, zinez euskaran gertatzen dena. Ez da hau kontu horietaz modu batean aritzeko lekua eta ez naiz hasiko autore eta lekukoen bila, hauek ugari diratekeen arren. Hala ere esan dezaket, neure oharmenean oinarrituta, erlatiboa bezala izenlaguna ere berez neutrala dela zehazte kontu horri dagokionez, nonahi kokatuta egonik ere. Zehaztasuna beste nonbaitetik dator kio izenari, ez izenlagunaren kokapenetik. Demagun egungo kazetari batek *Erromako Aitasantua Kuban izan da* esaten duela. Perpausa onargarria da, nire ustez, eta kontua argi dago: hor ez da *aitasantu* askoren artean zehazten. Demagun, berriz, zisma garaia aztertzen ari den historia ikerle batek honako hau dioela: *Aitasantu Erromakoak Avignongoari gutun bat bidali zion*. Hor *Erromako* izenlagunak balio zehaztailea du, eskuinean egon arren. Izenari buruz dugun ezagutzak eta suposizioak agintzen dute hor, ez izenlagunaren posizioak, gauzak direnetik nahi genukeenera behartzen egoskortzen ez bagara behintzat. Neure buruari begiratuta esan dezaket *Exteberri Ziburukoa* eta *Exteberri Sarakoa* deituran izenlaguna, zein ere zen haien hasierako balioa, zehaztailea begitantzen zaidala gaur egun (6).

(6) Ez da hau, esan bezala, lekukotasunak pilatzen hasteko lekua, baina ikus, adibide gisa, Axularren hau: *lurreco animaliac, aireco hegaztinac, itsasoco arraiñak, eta oihañeco çuhaitzac* (24), non ezkerreko izenlagun horiek guztiak “ez zehaztaile” diren.

Gauza bera esan daiteke, posesiboa dela-eta Garziak egiten duen ohar zorrotz bezain oker bati dagokionez ere. Honela dio Garziak: "Alde honetatik, majo luzitu dira *Aita gurea* bera ere «Gure aita» modernotzeko biboteak izan dituztenak, zeren, zehaztailetasun ez batere pertinente bat ezartzeaz batera, ez baitira nonbait konturatu testu zahar eta batez ere sakratuek arkaismoa berezko eta bidezko ezaugarri jator dutela, hemen eta Pernan(do)bukon" (393).

Ederra kontua! Noiztik da, órdea, moderno *Gure Aita* forma hori? Moderno, XVI. mendean hasita Leizarragak, Materrek, Belapeirek eta Iparraldeko eliza-testurik zaharrenek darabilten forma? Ez, bereziketa ez da —"Hegozentrismo" antzuan erori nahi ez badugu, behintzat— zahar-modernoen artekoa, Iparraldeko-Hegoaldeko tradizioen artekoa baizik: haiek *Gure Aita* erabili dute beti eta *Aita gurea* hauek —aukera bikoitz horren azpian ez ote daude, hurrenez hurren, frantseseko *Notre Père* eta gaztelaniako *Padre nuestro*?—. Eta, jakina, zehaztailetasunak ez du zerikusirik hor. Izan ere, kristau otoitzetako *Aita* hori guztiz zehaztua dago berez, *gure*-rekin nahiz *gure*-rik gabe eta honen kokapenak ez du zereginik horretan.

Labur esanda: erlatiboa izenaren eskuinean koka daiteke, bai, baina arrazoi praktiko eta estilistikoek zor zaie hori seguruenera, ez zehaztasun kontuetara, posizio horretan ere, ezkerrean bezala, izenak agintzen duenera irekia baitago hura.

3. ERLATIBO ARRUNTAREN BALIOA

3.1. Zer esan daiteke, bada, kontuak horrela badira, euskarazko erlatibo arruntaren balioaz? Argi dago: goiko adibide ugariek erakusten duten moduan eta De Rijkeek (156. or.), Oyharçabalek (125hh) nahiz Hídalgoek (120. or.) agerian utzi duten bezala, erlatiboa berez neutroa dela balio zehaztaileari dagokionez. Egitura beti bat dela, alegia, zehaztailetasuna gorabehera. Perpaus erlatiboak zerbait atribuitzen dio izen ardatzari, hari buruzko informazio zerbait ematen du. Beti egiten du hori. Informazio horren zeregina, ordea, ez da berez izenaren erreferentzia mugatzea eta hura zeini dagokion zehatz identifikaraztea. Batzuetan egiten du hori eta beste batzuetan ez.

Inguruko hizkuntza batzuetan badira erlatibo mota bien artean aldeak, perpausaren egituraren berean islatzen direnak: erlatibo zehaztaileak izenaren sintagmaren barneko osagaiak dira, hau da, sintagma bat eratzen dute harekin; zehaztaile ez direnak, berriz, sintagma hartatik kanpo daude, harekiko aposizioan (7). Gaztelaniaz ondo bereizten dira, esate baterako, *el hombre que vive contigo* zehaztailea eta *el hombre, que viene del mono* azalpenkoa.

(7) Horregatik "aposiziozko erlatibo" esaten zaie azalpeneko erlatibo horiei. Ugaria da honi buruzko bibliografia. Ikus, besteren artean, Lujan 1980: 53hh.

Euskaraz, ordea, esan bezala, ez dago horrelako alderik erlatiboaren egitura: hau beti bat da. Izen ardatzaren izaera da erlatiboaren balioa erabakitzen duena. Hura zehazkaia baldin bada, erlatiboak zehazte lan hori beteko du:

(31) Ez da harritzekoa Maiterekin bizi den gizona pozik egotea.

Perpaua horretan *gizon* izena gizonen multzoko banako bat izendatzeko erabiltzen du hiztunak eta, beraz, zehazteko dago, [+ *zehazkizun*] ezaugarria du. Erlatiboak betetzen du zehazte lan hori.

Baina izena zehazkaia ez bada, hau da, [- *zehazkizun*] ezaugarria badu, erlatiboak ez du zehazte lan hori egiten —horretarako modurik edo aukerarik ez baitu—:

(32) Ez da harritzekoa tximuagandik sortu den gizonak abere-ezaugarri batzuk izatea.

Perpaua honetako *gizon* ez da zehazkaia, generikoa baizik, hau da, gizonen genero osoari dagokiona, eta, beraz, hortik aparteko zehazte eta identifikaziorik eskatzen ez duena. Ikusten denez, ordea, erlatiboaren egitura bat da bietan.

3.2. Noiz esan daiteke, bada, izen ardatza [- *zehazkizun*] dela eta, hortaz, erlatiboak balio zehaztailerik ez duela? Kasu bat baino gehiago dago.

a) Hasteko, gorago ikusi bezala, izen propioak daude. Hauek, berez, banakoak izendatzeko berariaz ezarritako izen bereziak direnez, guztiz zehatzak dira eta besterik gabe identifikatzen dute izendatua. Ez dute zehaztailerik hartzen, ez erlatiborik ez bestelakorik. *Axular* esaten badugu, konparazio batera, ez dugu ondoan zer besterik erantsi —normalean, bederen— nori buruz ari garen zehazteko.

Ageriko gauza da, horrenbestez, izen propioak ez duela osagarri zehaztailerik hartzen. Osagarriren bat hartzekotan, atributiboa hartzen du, azalpenekoa, izendatuari buruz informazio gehigarriren bat dakarrena. Eta hori bera ere izen arruntetan baino gutxiagotan gertatzen da, bere soilean agertzen baita maiz izen propioa, izendatze hutsaren zereginean. *Axular, Lenin, Greta Garbo...* esaten dugu maiz, eta kito. Eta azalpeneko osagarriren bat eransten dugunean, hain zuzen, izendatuaren ezaugarri bat nabarmentzeko edota agerian jartzeko egiten dugu. Horregatik ez da harritzekoa horrelakoetan maiz nolabaiteko ponderazioa agertzea: *hainbeste dakien, hainbeste lan egin duen, hain ondo jokatu duten, horren traketsa den...*

Maiztasuna gorabehera, ordea, ezin uka daiteke *erlatibo arrunta + izen propioa* egitura eginkizun dela euskaraz, erlatiboak balio “ez zehaztailea” duelarik, noski. Horrelakoak dira gorago aurkeztu ditugun (8)-(9) eta (12)-(17) adibideetako perpauak, erlatiboa izenaren ezkerrean dutenak, eta (10)-koak, eskuinean dutenak. Horiei erants dakizkieke izen ardatza *Jaun, Jainko, Errege* eta horrelakoak dituztenak, haiek ere izen propioztat har baitaitezke.

Asmatzen hasita, berriz, adibide asko eskain daitezke, onartzeko aitzakia-rik ez dutenak:

- (33) a) Bost Tour irabazi dituen Indurain izan da txirrindularirik onena.
 b) Amerika aurkitu zuen Coloni harrera beroa egin zioten Gazte-
 lan.
 c) “El Quijote” idatzi zuen Cervantesek beste zenbait liburu ere
 idatzi zuen.
 d) Hainbeste film zoragarri egin zituen Charlotten izena ez da be-
 rehala ahaztuko.

Salbuespenak badira, ordea. Izan ere, erraz azal daitezkeen kasu jakin ba-
 zuetan izen arruntan pare erabiltzen ditugu izen propioak [+ *zehazkizun*] ezau-
 garria dutela. Eta horrelakoetan, jakina, zehaztaile eta guzti ageri dira.

Jokabide estilistiko berezi bat badago, esate baterako, non izendatua nor-
 tasun bat baino gehiagotan banatu bezala egiten den eta haietako bat bereizten
 den erlatiboaren (34a) edo beste osagai zehaztaile baten (34b) bitartez.

- (34) a) Hori da, hori, niri gustatzen zaidan Athletic!
 b) Alde ederra dago oraingo Josefina baldar honen eta gaztetako
 Josefina lirain haren artean.

Beste kontu bat da izen propioek guztiz “propio” izateko duten ezintasue-
 netik datorrena. Munduan izan diren, diren eta izango diren pertsona eta leku
 guztiei bere izena eman behar bagenie, bakoitzari berea eta besteena ez be-
 zalakoa, milaka eta miloika izen desberdin asmatu beharko genituzke, eta hori,
 bistan da, ezinezkoa da. Horregatik ditugu hainbeste *Jose* eta hainbeste *Maria*.
 Eta horrexegatik, halaber, beste osagaien bat eransten zaie maiz horrela erre-
 pikatzen diren izenei, “propio” izaten jarrai dezaten: *Jose Artetxe*, *Atano III.a*,
Antso Azkarra, *Etxeberri Sarakoa*... Horren antzeko zehaztea egin daiteke er-
 latiboaren bidez ere, bi pertsonak edo bi lekuk izen propio “bera” dutenean:

- (35) a) Athletic-en dabilen Guerrero da selekziora eraman dutena, ez
 Realean dabilena.
 b) Futbolean dabilen Nagore pilotan aritzen dena baino gazteagoa
 da.
 c) Euskal Herrian dagoen Tolosaz ari naiz, ez Frantziakoaz.

Kasu jakin horietan izan ezik, ordea, azalpenekoa da, esan bezala, izen
 propioarekin doan erlatiboa.

b) Ezaugarri hori bera du, bigarren, izenak balio generikoarekin erabil-
 tzen denean. Orduan ere erreferentzia jakina da eta, hortaz, ez da zer ibili ze-
 hatza zehazten. Azalpenekoa dira horrelako erlatiboak ere.

- (36) a) Khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pizgarri den
 alfertasuna (Axular: 24, gorago aipatua).

- b) Gaur hasi da osasunarentzat horren kaltegarri den tabakoaren aurkako kanpaina.
- c) Ez genuke sekula galdu behar giza harremanak gozaten dituen gizalegea.
- d) Uxa dezagun gure artetik hainbeste atsekabe sorrarazten duen inbidia.

Horietan guztietan erlatiboaren ondoko izena modu generikoan erabiltzen da eta ez ditu, hortaz, balizko multzo baten banakoak bereizten. Ez da, alegia, alfertasunen arteko *alfertasun mota* jakin bat bereizten, edota *tabako mota* jakin bati erreferentzia egiten, *gizalege klase* jakin bat mugatzen...

Balio generiko bera izaten du inoiz izenak pluralean erabiltzen denean, multzoko banako guzti-guztiei egiten baitzaie erreferentzia, haien artean be-reizketarik egin gabe. Honela, esate baterako, Beriainen honetan:

- (37) Eta Ayta Sanduari emoçu fauore eta gracia, ongui Eliza gouernaceco [...] eta alauer verce aren manuairen azpian dauden Perladoey [...] acertadeçatê (Beriayn: 75).

Otoitz horretan Aita Santuaz gainerako Prelado guztiak ditu gogoan Beriainek. Haren “manuaren azpian” egotea ez da, bada, Prelado batzuk bestee-gandik bereizten dituen ezaugarria, guzti-guztiei dagokiena baizik: erlatiboazalpenekoa da, ez zehaztailea. Gauza bera gertatzen da beste honako adibide honetan ere:

- (38) Zu erabat liluratuta uzten zaituzten gerra-filmak niri astunak egiten zaizkit.

Hor ere, interpretaziorik ohikoenean bederen, ez gara gerra-film banaka batzuei buruz ari —zure gustuko direnei buruz, alegia—, gerra-film guztiez baizik, denak, oro har, baitituzu gustuko. “Zu liluratuta uztea” ez da, hortaz, gerra-film batzuk besteetatik bereizten dituen ezaugarria, denei dagokien azalpena baizik. Bestelako balioa du izenak, noski, ondoko adibidean:

- (39) Aurtengo zinemaldian aurkeztu diren gerra-filmak oso itsusiak izan dira.

Ondoko adibideetan ere aski argi ikusten da balio generikoa duten izenen eta bestelakoen arteko aldea —eta, era berean, azalpeneko erlatiboan eta balio zehaztailea dutenen artekoa—. Pare bakoitzeko aurrena da generikoa.

- (40) a) Horren denboraldi luzea izaten duten txirringularriek pozik hartzen dute neguko atsedena.
 a') Ezarritako denbora-epean iristen ez diren txirringularrak laster-keetatik kanporatuak izaten dira.
 b) Txikitatik denetik jaten ohituak dauden amerikarrek harrera ona egin diote Txinako janariari ere.

- b') Europa ezagutzen ez duten amerikarrak asko dira.
- c) Ez al da barregarria hiltzeko jaio diren gizonak mundu hone-tako kontuez hain kezkatuta bizitzea?
- c') Mende honen hondarrean jaio diren gizonen teknologia aurre-
rapen handiak ezagutuko dituzte.

Aldea, ikusten den bezala, ez dago erlatiboaren egituran, izen ardatzak duen balioan baizik. Hiztunak hura zehazkai moduan erabiltzen duen ala ez, horixe da kontua. Eta hiztunak hura nola darabilen testuinguruak salatzen digu maiz. Erlatiboaren edukia ere testuinguru horren parte da, noski, eta bitarteko egokia izan daiteke inoiz izenak perpaus jakinean nolako erabilera duen antz emateko. Haren edukiak, alegia, ez haren egiturak edo kokapenak.

Ez da harritzekoa, gauzak horrela izanik, anbiguitatea sortzea inoiz, ez erlatiboagatik, jakina, izena batera zein bestera uler daitekeelako baizik. Hona adibide bat:

(41) Zuk hain gustuko duzun txanpaina ere eramango dugu afarira.

Bi modutara uler daiteke perpaus hori, bistan denez: "txanpaina" izen generikoa izan daiteke —eta, hortaz, afarian txanpaina izango dela adierazten da, lagunak hain gustuko duen edaria, alegia—. Zehazkaia ere izan daiteke, ordea, txanpain mota edo marka jakin bat adierazten duena —eta orduan erlatiboak zehazten du zein markaz ari garen, lagunari gustatzen zaionaz, alegia—. Kontua ez da batere bitxia. Hona bitara uler daitezkeen beste adibide batzuk:

- (42) a) Dena dakitela uste duten kazetariak nazkatuta naute.
- b) Beti seme-alabei begira bizi diren gurasoen bizimodua neketsua da.
- c) Ez da batere erraza beti etxetik urrun dabilen kamioilariaren lana.
- d) Etxean eta kanpoan nagusi izan den gizonak ez du erraz onartzen emakumearen aitzinatzea.

Testuinguru zabalak garbituko du maiz anbiguitate hori eta hark salatuko digu hiztunak nola darabilen izena. Eta horrela jakingo dugu, esate baterako, kazetari guztiez edo dena dakitelakoan dauden bakarren batzuek ari den hiztuna (42a), guraso guztiez ala bere arduran aitzinegi doazen batzuek bakarrik mintzo ote garen (42b)... Eta ingurua ez bada aski zehatza kontua argitzeko, azalpenen bat erantsita lortuko da anbiguitatea haustea, hautsi nahi bada behintzat.

Dena dela, inoizko anbiguitate horrek berak erakusten du aski argi neutroa dela euskaraz erlatibo arrunta, hau da, izen ardatzak agintzen duenaren arabera jokatzen duela.

c) Erlatiboa, hirugarren, izena bestelako osagai baten bitartez zehaztua duen izen sintagmari erants dakioke eta orduan, bistan da, balio esplikatibo edo azalpenekoa du hark, ez zehaztailea. Hona adibide batzuk:

- (43) a) Sekula haserretzen ez den *gure aita* bere onetik aterea ikusi dugu gaur.
- b) Aurten ehun urte bete dituen *Donostiako katedralean* ospakizun bereziak egingo dira.
- c) Bruselasko bileratik etorri berria den *Ekonomia Ministroa* itxaropentsu agertu da geroari buruz.
- d) Hain ondo ezagutzen duzun *ingeles literaturaz* hitzaldiño bat egitea eskatuko genizuke.

Perpau horietako *gure aita*, *Donostiako katedrala*, *Ekonomia Ministroa* eta *ingeles literatura* izen ardatzak guztiz zehatzak dira —testuinguruaren jabe direnzentzat, behintzat, aita, katedral, ministro eta literatura jakinez mintzo baitira, hurrenez hurren—. Erlatiboak, berriz, haiei buruzko informazioa ematen du, besterik gabe, hau da, balio zehaztailerik gabe. Hain zuzen ere, erlatiboaz gabetuta ere ez dute perpau horiek ezer galtzen zehaztasunean.

Izen soila bera ere testuinguruak egin dezake guztiz zehaztua. Alde horretatik ez da erabat zuzena, nire ustez, Garziak dioena: “Beste honetan, jakina, zentzu zehaztailea erabat nagusituko litzatekeela (lehendakaria ez bezala, bat baino gehiago baitira ministroak, besteak beste): oporretan etorri zaigun ministroaren prentsaurrean” (399). Testuingurutik landa zehaztaile gisa ulertuko da maizenik perpau hori, beharbada, bai, baina ez da zaila bestela ulertzera eramango gintuzketen testuinguruak asmatzea. Demagun Gobernu ministro jakin bat urtero etortzen dela udan *gure herrixkara* oporrak egitera eta aurten ere haren iritsieraz mintzo dela herriko egunkaria:

- (44) Urtero bezala aurten ere oporretan etorri zaigun ministroak hitz politikak esan ditu *gure herriaren* alde.

Testuinguru horren jabe denentzat izenaren erreferentzia zehatza da, erlatiborik gabe ere. *Zer, etorri al da aurten ere ministroa?*, galdegin diezkieke herri horretako lagun batek beste bati, zein ministroz ari diren batere zalantzarik izan gabe. *Bai, etorri da, eta hitz politikak esan ditu ostera ere gure herriaren alde* izan daiteke beste milaren arteko erantzuna.

Hiru kasu horietan, bada —eta besteren batean, beharbada—, izena zehaztua dagoenez, [- *zehazkizun*] da eta erlatiboa nahitaez azalpenekoa izango da. Hura zehaztailea izango bada, hain zuzen, izenak [+ *zehazkizun*] ezaugarria izan behar du (8).

(8) Izena mugagabearen denean ere erlatiboak ez du hura erabat zehazten, ezinezkoa baita hori definizioz. *Kanpotarra zirudien gizon batekin joan da* perpausean, esate baterako, gizonen multzo zabaleko kide bat aipatzen da eta hari buruzko informazio zerbait ematen da —“kanpotarra zirudiel”, alegia—, baina ez da erabat identifikatzen eta zehazten gizon hura zein den. Ezin da, gainera, hori egin, “bat” dela esaten baita, kontua hortik aurrera mugatu gabe. Horrelakoak, Euskaltzaindiaren *EGLU-V* gramatikaren arabera, “murrizgarriak” dira bai —hots, neurri batean zehaztaileak—, baina ez “mugagarriak”.

3.3. Erlatiboa maizenik izen ardatzaren ezkerrean joan ohi bada ere, argi dago haren eskuinean ere joan daitekeela eta ez gutxitan hala joaten dela, goiko adibideetan ikusi den bezala. Eta, esan dugun moduan, kokapen horrek balio zehaztailearekin lotura zuzena ez badu, galdegin daiteke, azkenik, noiz eta zein testuingurutan ageri den erlatiboa leku horretan.

Ez da hau, noski, eskuineko kokapenaren inguruko gorabehera guztiez mintzatzeko lekua, ez baita hori lan honen xedea (9). Zenbait azalpen eman daitezke, hala ere. Oyharçabalek dioenez, diskurtsoaren eraketarekin dago lotua. Izena agerianago jartzeko modu bat izan daiteke, batetik, edota izenaren determinatzaile guztiak aurretik “erabakiak” ez daudenean erabiltzen den baliabidea: lehenbizi izena esan eta ondotik haren determinatzaileak “pentsatu”.

Diskurtso gorabeherak, eta inoiz estilistikoak, dira, bada, horrelakoan tar-teko. Zenbaitetan erlatiboa adjektibo batzuen segidan ematen da eta, orduan, haien artean txertatua ageri da, haien posizioan, izenaren eskuinean. Hona, esate baterako, Mogelen hauek —gorago eman dugu lehena, non *lotsagarri* adjektiboa eta *damu emoten deusten* erlatiboak segidan dauden—:

- (45) a) aitauten deustezan izen [*lotsagarri*] [*damu emoten deusteen*]ak (Moguel: 41).
 b) Daukat Jaungoikoak emonda emazte [*otzan*], [*baketsu*], [*euli bati bere gatxik egingo eleuskion*]a (*Ib.*: 58).
 c) da ordi [*posiga*] [*etxe guztia ondatu daben*]a (*Ib.*: 33).

Edota beste *gaizto*-rekin batera *zuzendu ezin diren* erlatiboa duen hau:

- (46) Aspertutik naukate mutil [*gaizto*] [*zuzendu ezin diren*] horiek!

Erdal adjektiboen ordain egokia izan daiteke erlatiboa: “incoregible” itzultzeko, adibidez, *zentzakaitz*, *zuzengaitz* eta horrelakoez gain *zuzendu ezin den* erlatiboa ere erabil daiteke; eta “inalcanzable” itzultzeko ere *lortu ezin den* perpaus erlatibora jo dezakegu. Eta, zenbaitetan, adjektiboaren oihartzun izate horrek eragiten du beharbada eskuineko kokapena. Horrela, Axularren *animalia adimendurik ez duen* itzuliaren atzean erdarazko *animal irrationnel* dago, beharbada —beste behin Axularrek berak *animalia adimengabe* esaten duena—, non, bistan da, *adimendurik ez duen* erlatiboa *irrationnel* adjektiboaren ordain baita eta horrek eragina bide duen haren kokapenean. Leizarragaren *Guiçona da [...]* *animal raçoin duembat* perpausaren atzean ere erdarazko *animal rationnel* dagoke.

Beste zenbaitetan, berriz, izenaren inguruan elementu bat baino gehiago pilatzen dira —izenlagun bat eta erlatibo bat; erlatibo bi (10)...—, eta horre-

(9) Luze ematen du Oyharçabalek eskuineko itzuli horren berri. Zenbaitentzat desegokia den arren, euskalki guztietan dago dokumentatua, hark erakusten duen bezala (18hh.). Zabal aztertzen du, halaber, kontu hau Bittor Hildagok.

(10) Zenbaitek eskuineko kokapen honen aurka dituzten iritziak leundu egiten dira maiz erlatibo biko perpausen kasuan, Oyharçabalek azaltzen duenez (21 or.).

lakoetan egokia izan daiteke erlatibo horiek izenaren alde banatan ezartzea, bide batez, ordena jarraituan “galduxea” geratuko litzatekeen izena agerianago utziz. Ikus gorago aipatu ditugun Mogelen adibide hauek:

- (47) a) *lengo eguneko ipuiñ abadeak atera ta irakatsi eutsuna* (Moguel: 61).
 b) *txikitan guraso edo eskola maisuak irakatsi eutsuzan eskari Eleizeak artuta daukazanak* (*Ib.*: 28).
 c) *zuri entzuten deutsudazan izen neuk eztakidazanak* (*Ib.*: 49).

Hala ere, ezker-eskuinetan banatze hori ez da nahitaezkoa, erlatibo biak ezkerrean dituen perpaus honek erakusten duen bezala:

- (48) orain iatort gogora [*gaztetan ikasi neban*] [*asko esan gura daben*] ipuiñ au (*Ib.*: 55).

4. AZKEN HITZA

Erlatibo arruntaren balioari buruz Garziak aurkeztutako teoria aztertzea zuen helburu lan honek. Erakusten saiatu naiz haren “sistemak” euskaldunon gramatikan oinarririk ez duela. Kokapenaren arabera erlatiboak balioa desberdina duelako hori haren *ustea* dela gehienaz ere, ez euskarak duen jokabidea (11).

Inguruko hizkuntzek badute, bai, erlatibo zehaztaileen eta ez-zehaztaileen arteko bereizketa hori. Hala da. Zer, ordea, hala bada ere? Oyharçabalen hitzekin esanik: “je ne crois que l’on puisse procéder de la sorte, et importer sans analyse du fonctionnement réel de la langue, des distinctions qui apparaissent dans d’autres langues, mais qui ne sont en aucune manière universelles” (126 or.).

AIPATURIKO LANAK

AKESOLO, Lino. 1989: *Idazlan guztiak I*. Larrea - Zornotza: Ediciones El Carmen.

—. 1987: Gregorio Arrueren *Santa Genovevaren vicitza*-ren edizioa eta hitzaurrea. Erein. Donostia.

AXULAR. 1643: *Guero*. Bordele: G. Milanges. [Facs. Bilbao: Euskaltzaindia. 1988].

(11) Beste kontu bat da —eta horretan zuzen dabil Garzia— itzulpenetan-eta arazoak sortzen direla erdal erlatibo luze eta konplexuen euskal ordaina ematerakoan, itzulpen literalak pisu eta ezeroso gertatzen baitira maiz. Funtzionalak izango badira, bai egiteko eta bai ulertzeko, bestelako egituraren bat eman beharko diegu sarri askotan horrelako perpausari. Baina hori, esan bezala, beste kontu bat da. Eta ez da komeni itzulpengintzarako egokiak diren ohar horiek euskal gramatikaren teoriakin nahastea.

- BERIAYN, Iuan. 1621: *Tratado de cómo se ha de oyr missa*. Pamplona. [Facs. Donostia: Hordago (Lur). 1980].
- ECHAIDE, I.M. 1912: *Sintaxis del Idioma Euskara*. San Sebastián.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V* (argitaratzeko).
- GARZIA, Juan. 1997: *Joskera lantegi*. Vitoria-Gasteiz: IVAP.
- GOENAGA, Patxi. 1978: *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.
- HIDALGO, Bittor. 1998-99: *Izenaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz*. Donostia. (Argitaragabea).
- LARDIZABAL, Francisco Ignacio de. 1856: *Gramática vascongada*. San Sebastián: I.R. Baroja.
- LEIZARRAGA, Joannes. 1571: *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Rochella. [Facs. Donostia: Hordago (Lur). 1979].
- LUJAN, Marta. 1980: *Sintaxis y semántica del adjetivo*. Madrid: Ediciones Cátedra.
- MICOLETA, Rafael de. 1635: Ikus Ibon Sarasola, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU* 1983, 69-212.
- MOGUEL, Juan Antonio de. 1981⁸: *Peru Abarka*. Bilbao: Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.
- OYHARÇABAL, Bernard. 1985: *Les relatives en basque*. Paris: Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.) - Laboratoire de Linguistique Formelle (U. A. 04 1028).
- RIJK DE, Rudolf. 1972: *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses* (MIT).
- SAN MARTIN, Juan. 1998: *Euskararen ostarteak*. Donostia: Erein.
- VILLASANTE, Luis. 1976: *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñate: Editorial Franciscana.